

Euskarabildua jardunaldiak mundu jasangarrirako bidean teknologia burujabetzak egin ditzakeen ekarpenak izango ditu hizpide

Urriaren 28an izango da Donostiako San Telmo Museoan. “Zenbat kutsatzen du like batek. Mundu osorako internet jasangarrirantz” da aurtengo edizioaren izenburua.

Garai oso berezia bizi dugu gaur egun, antropozenoaren aroa¹, gizakiak Lurrean daukan eraginaren aroa, alegia. Aro hau, gainera, gizadiak inoiz aurre egin behar izan dion erronkarik handienetakoak markatzen du: larrialdi klimatikoa.

Frutak plastikoz inguratuta ikusten ditugu supermerkatuetan eta asaldatu egiten gara - arrazoi osoz-. Ordea, sarean segunduro mugitzen ditugun milioika datuek duten eragin ekologikoa ez dugu ikusi ere egiten. XXI. mendeko teknologiak abiadura ezin azkarragoan ari dira garatzen, gure bizitzako eremu guztiak digitalizatzen ari gara jasangarriak ote diren kontuan hartu gabe.

Atzeraezineko aldaketa klimatiko eta muturreko desberdintasun sozialen garai honetan, azpiegitura teknologikoen eraginaz hausnartu nahi dugu aurtengo Euskarabilduan. Munduaren amaiera distopikoetatik harago, etorkizun posible desiragarriak aztertzen saiatuko gara: Hodeiaren azpian ezkututzen den kontsumo neurrigabeaz eta horien arteko alternatibez.

Besteak beste, honako galderi erantzun nahi die jardunaldiak:

- Nola eraiki Internet jasangarri bat?
- Zenbat kutsatzen dugu Interneten erabilerarekin?
- Solar Punk filosofia etorkizun posibleak eraikitzeko.
- Nondik marraztu sistema jasangarriak?
- Zergatik jarri behar ditugu arbasoen teknologiak balioan?
- Zein da teknologia burujabetzak bizi dugun egoera berezi honi egin diezaiokeen ekarpena?
- Zer lotura dauka software libreak garapen jasangarriarekin?

Hizlariak

Euskal Herri kanpoko hiru hizlari izango dira aurtengo Euskarabilduan:

- Spideralex- ek ziberfeminista eta teknologia libre eta iraunkorren maitale bezala aurkezten du bere burua. Teknologia burujabetzaren arloan dauden ekimenen inguruko bi liburu idatzi ditu eta etorkizun utopiko eta feministen inguruko tailerrak

¹ <https://eu.wikipedia.org/wiki/Antropozeno>

antolatzen ditu. Generoaren eta teknologien arteko harremana aztertzen duen Donestech kolektiboaren sortzailea da.

- March Momentanea Guatemalako Ziberfeministen elkarteko kidea. March antropologa eta hackfeminista da. Bere lana teknologien, lur-gorputz lurraldeen eta indarkeria soziopolitikoaren arteko harremanean oinarritzen da. Guatemalako *CiberfemLab* kolektibo ziberfeminista eta *Ciberseguras* Latinoamerikako sarean parte hartzen du. *Digital Defenders Partnership* proiektua koordinatzen du Latinoamerikako eskualderako.
- Kris De Decker *Low-tech Magazine* aldizkariaren egilea da, arazo guztiek konponbide teknologikoa dutela onartzen ez duen argitalpena. 2018az geroztik, *Low-tech Magazine* aldizkaria eguzki-energiaren hornitzearen zerbitzari batean funtzionatzen du. De Deckerrek Lancaster Unibertsitateko Demand Centre-erako ere idatzi izan du, praktika sozialei dagokienez energia eskaria aztertzen duena. *Human Power Plant* proiektuaren sortzailea ere bada, egungo gizartean giza energia ekoizteko aukerak aztertzen dituen arte proiektu bat. 2007an *Low-tech Magazine* sortu baino lehen, zientzia eta teknologiari buruz aritu izan zen egunkari eta aldizkarietan freelance kazetari gisa. Belgikan jaio zen eta gaur egun Bartzelonan bizi da.
- Auzoko feminista eta zientzia-dibulgatzailea, Ona de Gibert Bartzelonako Supercomputing Center-en ikertzailea da eta hizkuntza gutxituetarako hizkuntza-teknologiak garatzen laguntzen du. NLP Comunicat katalanezko teknologia garatzeko komunitate libre eta irekiaren sortzaileetarako bat ere bada, sareak sortzearen garrantzian sinesten baitu. Bere aisialdian, irakaslea da eta emakume eta bitarrak ez diren pertsonen programatzen irakasten die, mundu digitalean dagoen genero-arrakala murrizteko borrokatuz. Mundu honetan bere sarrera malkartsua izanenez, letretako karrera batetik etorruta, orain etortzearen dauden pertsonentzako bidea errazteari dihardu.

Horrekin batera, Solar Punk filosofiaren eta etorkizun posibleen inguruko hitzaldia jasoko dugu Beñat Irasuegiren eskutik. Etorkizun posible bakoitzaren mapeoa eskainiko digu eta ildo horretatik jarraituz, jardunaldia ixteko, jada martxan dauden zenbait proiektu ezagutzeko aukera izango dugu: Fair Phone, Onaro eta Reciclanet.

Egitaraua:

09:00: Aurkezpena

09:15: **Sarrera:** Zein da gure beste aztarna digitala?

Sandra Perez (Iametzak)

09:30: **Hitzaldia:** Por qué Silicon Valley no nos salvará del cambio climático

Spideralex (Donestech)

10:00: **Hitzaldia:** Momentánea... ¿estás ahí? Una reflexión personal sobre el tiempo y los recursos

March (Momentánea Ciberfeministas Guatemala)

10:30: **Hitzaldia:** How (not) to build a solar powered internet

Kris De Decker (Low-tech Magazine)

11:00: Atsedena

11:30: **Hitzaldia:** Euskal Herria SolarPunk

Beñat Irasuegi (Talaio, TEKS)

12:00: **Hitzaldiak:**

FairPhone – **Iratxe Acha**

Onaro – **Xabier Igartua**

12:30: **Hitzaldia:** Esobirania tecnològica, sobirania lingüística

Ona de Gibert Bonet (Bartzelonako Supercomputing Center)

Zer da Euskarabildua?

Euskarabildua, euskara eta teknologia elkartzea helburua duen jardunaldi dibulgatzailea da, gizartean eragin nahi duen ekimen berritzaileentzako hausnarketarako eta zabalkunderako gunea, euskal gizartean eta euskarari aplikagarriak diren ezagutza eta berrikuntza teknologikoen sustapenerako aukera ematen duena.

Jardunaldi praktikoak egitea da gure helburua: Esperientziak ezagutaraztea eta partekatzea. Nazioarteko izaera izan du sortu zenetik, Euskal Herrikoez gain, aurrez Euskal Herrian egon ez diren hizlariak ekartzea lortzen dugu urtero.

Iametzak, Argiak eta Ametzagaiñak elkarlanean antolatzen ditugu 2012az geroztik jardunaldiok.

2021eko Euskarabilduaren aurkezpen bideoa

<https://peertube.euskarabildua.eus/w/9Whx6byKSAi3EwHET6co8D>

Publikoa

Euskarabilduaren helburua teknologian interesa duen edonor biltzea da, ez perfil teknikoa edo espezializatua dutenak bakarrik. Teknologiak hainbat modutan lagun diezaiokeen edozein pertsonarengana, elkarrengana, administrazioengana edo enpresengana heltzea da gure lehentasuna.

Euskarabilduak perfil oso desberdinetako jendea elkartzeko gaitasuna duela erakutsi digu azken urteotan. Jardunaldietan, instituzio publikoetako arduradunak, hezkuntzaren esparruko arlo desberdinetan lan egiten duen jendea, enpresa mundutik datozenak edo gaiak erakarritako norbanakoak bildu izan ditu.

Streaming bidezko jarraipena

Aurtengo edizioan ere, EITBk *streaming* bidez jardunaldia eskainiko du. Horretaz gain, zuzeneko jarraipena egiteko eta hizlariak esaten dutenetik eduki pilulak jasotzeko, jarraipena.euskarabildua.eus atala prestatu dugu eta *Make it visual* taldeko Aare Castillak eta Ainhoa Garciak zuzenean egindako *visual thinking* -aren bidez, jardunaldia irudi bitartez jarraitzeko aukera ere egongo da.

Noiz eta non

Euskarabilduaren 10. edizioa Donostiako San Telmo Museoan izango da, urriaren 28an 09:00etatik 14:00etara.

Beharrezkoa izena ematea

Parte hartu nahi dutenek aurrez izena ematea beharrezkoa da. Izen-ematea guztiz doakoa da; epea irekita dago jada eta www.euskarabildua.eus webgunearen bidez egin daiteke.